


DEBAGOIENeko LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK



AITOR LUENGOREN IBILBIDEA

Lan merkatua



GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

GOIAZ! 2017

Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten



goiazdebagoiena



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Foruaren, Landa Informatikoa
eta Lurralde Oribako Departamentua

Aitor Luengok 40 urterekin industria mundua utzi eta pertsoneri laguntzen lan egin nahi zuela erabaki zuen. Bergarako Mariaren Lagundia Ikastolan Gizarte Integrazioa goi-mailako heziketa zikloa ikasten hasi zen, eta egun, urte eta erdi geroago, praktikak egiten ari da, Gizakia Helburu ekimenean, Izan Fundazioan.

Zer moduz doa praktikaldia?

Oso interesgarria, laneratzeko esperientzia bat da. Jada, praktikaldia egin aurretik, 8 hilabete lehenago boluntario hasi nintzen Izan Fundazioan, igeriketa ikastaroak eskaintzen. Larritasun maila txikiarekin erabiltzaileekin hasi nintzen eta egoera zailena bizi duten pertsonekin ari naiz orain, Lasao-ko zentroan.

Zure lehen ikasketak industria arlokoak izan ziren, ezta?

Bai, FP2 industri maisutza zena ikasi nuen, Mikromekanika-n, eta urte asko egin ditut industrian lanean. Arazo

batzuk direla eta, lana arlo sozialean eta arazoak dituzten pertsonekin egitea erabaki nuen. Makinetatik pertsonetara. Apustu handia izan da, baina oso pozik nago egindako aukerarekin.

Nolako izan da ikasketetara buelta?

Indarrarekin hartu dut; nire helburuak garbi nituen, eta motibazio handia. Motza egin zait, bi urtean esperientzia pilo bat bizi izan ditugu ikasgelan: emozioak, zailtasunak, enpatia eta antzekoak landu ditugu. Horrek ikasledeen arteko harreman estua eta konfiantzarako sortu du. Gizarte Integrazioa ikasteko seguru nago bestelako ikasketak egiten diren geletan ez dela sortzen.

Eta praktikak bukatutakoan, zer?

Auskalo non aurkituko dudan lana, baina garbi daukat arazoak dituzten pertsonekin, drogekin arazoak dituztenekin edota atzeritarrekin lan egin nahi dudala. Horretarako bidea zabaltzen ari naiz orain.